

Hautsi ditzagun kristalezko sabaia berdintasunera igoz





EMAKUMEEK LAN-ARLOAN JASATEN DUTEN BERDINTASUN FALTAREN ONDORIOA DA SOLDATA-ARRAKALA

Ezagutzen duzu emakumezko langileren bat, lanpostu berean eta baldintza beretan egonda gizonetzko langile batek baino soldata txikiagoa jasotzen duenik? Erantzuna, seguruenik, ezezkoa izango da, hala egitea zuzeneko soldata-diskriminazioa izango bailitzateke, eta legeak horren kontra egiten baitu. Ez dago hori nahi duen enpresarik. Baina horrek ez du esan nahi soldata-arrakala existitzen ez denik, baizik eta dirudiena baino arazo konplexuagoa dela.

Gizonen eta emakumeen arteko soldata-desberdintasuna, EAEn, 6.332koa eurokoa da. Hau da, gizonek, batez beste, 32.529 euro irabazten dituzte urtero, eta emakumeek, berriz, 26.197 euro, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) emandako 2019ko datuen arabera. Adierazle horri soldata-arrakala esaten zaio, eta hura ezabatzea da gizarte honek dituen erronka handietako bat. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendari Izaskun Landaida Larizgoitiak deitoratu duenez, soldata-arrakalak “erakusten du emakumeek eta gizonek egiten dituzten lanei ez zaiela balorazio berdina ematen, eta gure gizartean desoreka dagoela erantzukidetasunaren arloan; izan ere, emakumeek zama handiagoa duten zaintza-lanei dagokienez”.

Soldata-arrakalak arrazoi ugari ditu, eta batzuk nabarmentzeko modukoak dira. Hauek dira lanorduko ordainsari txikiagoa eragiten duten faktoreak: soldata-diskriminazioa zuzena (1); segregazio horizontala, edo laneko segregazioa (2); eta segregazio bertikala, edo kristalezko sabaia (3). Emakunderen eskariz egindako Gene-

ro-arrakalak Euskadiko lan-merkatuan azterlanaren arabera, “sexuaren ondoriozko laneko segregazioa da emakume eta gizonen arteko soldata-arrakala egon dadin eragin handiena (% 35) duen faktorea”. Azterlanean, dokumentuen bidez azaltzen da mundu osoan dirauen segregazio horizontala eta bertikala, emakumeak lan-mota jakinetara zokoratu eta aginte-guneetan egotea eragozten diena.

Bestalde, lan produktiboan ordu gutxiago egiteko arrazoi nagusiak lan-iruzurra, emakumeen jarduera-tasa txikia eta erantzukidetasunik eza dira. Eustatek argitaratutako datuen arabera, etxeko lanak eta zaintza-lanak emakumezkoek egiten dituzte gehienbat. Etxeetan, lanaren % 67,2 emakumeek egiten dute, eta, beste % 32,8a, berriz, gizonek. “Gizon askoren erantzukidetasun falta dela eta, emakumeek malgutasun handiagoko lanbideak onartu behar dituzte, lanaren eta familiaren beharrezko orekatzeko. Horrenbestez, jardunaldi partzialeko lanetan dabilten emakumeen portzentajea gehiegizkoa da mundu osoan. EAEn, hain zuzen ere, lanaldi partzialeko lanaren % 80 baino gehiago emakumeek egiten dute”, zehaztu du Landaidak.

Genero-arrakala pentsioetan

Soldata-arrakalak ondorio zuzena izan ditzake erretiroa hartzeko garaian ere. “Hainbat faktorek eragiten dute berdintasun falta, bai lan-bizitza aktiboan eta bai ondoren”, deitoratu du Landaidak; “besteak beste, jardunaldi partzialeko lanetan emakumeen portzentajea gehiegizkoa izatea, ekonomia informalean edo ezkutuko ekono-

mian duten jarduera, feminizatutako lanbideek balorazio eta ordainsari eskasagoak izatea, zaintza-lanetan aritzearen ondorioz lan-ibilbidean etenaldiak gertatzea...”.

Emakumeek jasotzen dituzten pentsioak (soldata baten truke lan egin izanari esker halakorik jasotzen dutenen kasuan) askoz txikiagoak dira gizonenak baino. Gizarte Segurantzaren datuen arabera, gizonen batez beste pentsioa 1.249 eurokoa da hileko, eta emakumeena, berriz, 825ekoa. “Gizarte-segurantzako sistema publikoa gizarte-eredu patriarkal bati jarraituz diseinatuta dago. Zuzeneko eragina du emakumeek jasotzen dituzten prestazioetan, eta, horren ondorioz, haiek arrisku handiagoa dute pobrezia-egoerara iristeko, gizonekin alderatuta”. Halaxe adierazi dute Genero-arrakala Euskal Autonomia Erkidegoko pentsioetan txostenean.

Funtsezko eskubide eta printzipioa

Soldata-diskriminaziorik eza, hau da, balio bereko lanagatik emakumeek eta gizonen ordainsari berdina jasotzea, funtsezko eskubide eta printzipioa da, eta, Europako araudiek ez ezik, nazioartekoek, estatukoek eta EAEkoek ere babesten dute. Horregatik, soldata-arrakalaren aurka borrokatzeak duen interes sozial eta estrategikoak isla dauka herrialde askotako erakundeetan. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak Euskadin Soldata-Arrakala murrizteko Estrategia eta Plan Operatiboa onartu zuen. 2018-2020 aldirako ekintza-plan bat da, “Europar soldata-arrakala txikiena duten herrialdeetako bat Euskadi izateko helburua duena”, azpimarratu du Landaidak.

ZABALEAN

AMPLIANDO

Hartutako neurrien artean, nabarmentze-koak dira "sexu-arrazoien ondoriozko balizko soldata-diskriminazioak zuzentzeko ikuskatze-kopurua handitzea, sexu-arrazoien artean soldata-diskriminaziorik ez jasateko eskubidearen berri ematea gizonetako zein emakumezko langileei, eta pizgarriak ematea emakume gehiago integratu daitezkeen azterketa tekniko eta teknologikoetan", Landaidaren arabera. Bere lantaldearekin batera, 2021-2025 aldirako beste ekintza-plan bat lantzen ari da Emakundeko zuzendaria.

Soldata-arrakala desagerrarazteak onura asko ekarriko lizkioke gizarteari. Bestek beste, "emakumeentzako autonomia ekonomiko handiagoa; pertsona guztien dohainei etekin handiagoa ateratzea; pobrezia-indize txikiagoak; eta zuzeneko eragina gizarte-segurantzaren kotizazioetan, eta, horrenbestez, emakumeek jasoko dituzten pentsioetan. Genero-berdintasunaren arloko hobekuntzek ekonomiaren hazkunde bermatzen dute", bukatu du Landaidak.



GLOSARIOA:

1. SOLDATA-DISKRIMINAZIOA:

-ZUZENEKOA: pertsona batek lanorduko ordainsari txikiagoa jasotzea balio bereko lana egiten duen beste batek baino. Espresuki debekatuta dago Europar Batasuneko herrialde guztietan.

-ZEHARKAKOA: itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo jardunbide batek desabantaila zehatz bat sortzea sexu jakin bateko pertsonentzat. Egoera hori sortzen da oinarrizko soldatari zenbait osagarri eta pizgarri ezartzean, normalean bi sexuetako bati lotuak, eta, oro har, gizonenei.

2. SEGREGAZIO HORIZONTALA, EDO LANEKO SEGREGAZIOA: emakumeek eta gizonen genero-erolei lotutako lanbideetan dihardute, sexuaren arabera lanaren zatiketari jarraituz.

3. SEGREGAZIO BERTIKALA, EDO KRISTALEZKO SABAIA: emakumeei erantzukizun eta erabakimeneko lanpostuetara iristeko orduan parean duten oztopoak dira.

4. SOLDATA-ARRAKALA: gizonen eta emakumeen urteko batez besteko irabazien arteko aldea.

Interesgarria / De Interés

GUÍA



Una guía para acercarse al porno con una mirada consciente.

El Consejo de la Mucedá publica 'Construcción del imaginario sexual en las personas jóvenes. La pornografía como escuela'.

VER

LIBRO

NURIA VARELA

FEMINISMO

Feminismo para principiantes. Nuria Varela.

Edición revisada, actualizada y ampliada del libro de referencia, en España, de la historia del feminismo ¿Quiénes eran las sufragistas? ¿De dónde sale el feminismo radical? ¿Por qué se habla de marxismo y feminismo como de un matrimonio mal avenido?

VER

BIDEOA



Oldartu - Rebélate

2020 urteko Beldur Barik lehiaketako bideo irabazlea 3 kategorian (16/29 urte): Egileak: Aisha Acosta Martínez; Leire Arrate López de Haro; Asier Barruetaña Anchustegui; Leire de Blas Vergara

BIDEOA

Emakunderen “Entzunez gero, ikusiko duzu” kanpainak publizitate eraginkorrenari saria jaso du Madrilen, Publifestivalen

“
“Edo zure lagunak edo ni”.
Aukeratu beharra nuela esan zidan.
Ahoa irekitzen nuen eta dena iruditzen zitzaion
gaizki... Eta gero eta txikiago sentitzen zoaz...”

entzunez gero,
IKUSIKO DUZU

ADI DAGOEN GIZARTE BATEK BAKARRIK ANTZEMAN DEZAKE INDARKERIARIK EZKUTUENA.

Azaroak 25, Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna
25 de noviembre, Día Internacional para la

900 840 111 24 h

Publizitate Eraginkortasunaren Saria

EUSKO JAIALARITZA GOBIERNO VASCO

Emakunde-Emakumearen euskal erakundeak izazko Azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean, egin zuen kanpainak (“Entzunez gero, ikusiko duzu”) Publifestivalek, Publizitate sozialaren Nazioarteko Jaialdiak, ematen duen Publizitate sozialeko dokumentalen exekuzio onenari eta Publizitate kanpainako eraginkortasunononari saria jaso du. Labrit

Komunikazio enpresarekin batera egindako spota izan da. Kanpaina hau Emakundek 55 eta 79 urte bitarteko emakumeekin egindako prozesu baten emaitza izan zen, eta urte askoan bizi izandako indarkeria ezberdinen benetako testigantzekin eratu zen.

[Bideoa.](#)



La red Begira de Emakunde elabora una guía para medios de comunicación sobre cómo comunicar los casos de violencia

El pasado mes de marzo se celebró vía online la jornada “Recursos y experiencias para una comunicación igualitaria” que se enmarca dentro de las actividades de la Red Begira de Emakunde para una comunicación y una publicidad no sexistas. En la misma, la especialista en violencia contra las mujeres, psicóloga y directora de Sortzen, Norma Vázquez, presentó la guía “Cómo comunicar en casos de violencia sexual contra las mujeres”.

[GUÍA](#)



BA AL ZENEKIEN?

Steam Euskadik Hezkuntza zientifiko-Teknikoa eta arlo horretako bokatuzkoak bultzatzen ditu.

STEAM Hezkuntza honakoa lortzen duen hezkuntza da:

- Zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika Artea eta Humanitateekin lotuta bateratzen duena.
- Zeharkako zein diziplinako oinarriko gaitasunak garatzen dituena.
- Ikasleak ahalduntzen dituena erantzukizunez gure gizarteko errotzari aurre egin ahal izan diezazkieten.

Hiru dira STEAM Euskadi Estrategiaren helburu nagusiak:

1. Hezkuntza eta prestakuntza zientifiko-teknikoa bultzatzea hezkuntzaren etapa guztietan, eta bertan sartzea eragile sozioekonomikoen lana.
2. STEM arloan bokatuzko eta asmo profesionalak piztea, haur-hezkuntzatik hasita eta neskei arreta berezia jarritz, etorkizuneko errotzari begira ikasleak behar bezala prestatzeko.
3. Dibulgazio eta kultura zientifiko-teknologikoa sustatzea euskal herritarren artean.

IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA

Izaskun Landaida Larizgoitia Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria da 2013tik. Ibilbide luze eta emankorra egin du berdintasun-politikak garatzen eta defendatzen, Gizarte Graduatuko diplomaduna da UPV/EHU, eta Berdintasuneko Agente masterra egin zuen Valentziako Unibertsitatean. 1995etik dihardu administrazio publikoan; urte hartan, Berdintasun eta Gizarte Ekintzako zinegotzi kargua hartu zuen, eta 2007an, berriz, alkate izendatutako lehenengo emakumea izan zen bere udalerrian, Ugao-Miraballesen. Era berean, Berdintasun-arduraduna izan da Eudelen, Euskadiko Udalerrien Elkartearen, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren menpeko Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia aritu da. Uneotan, 2021-2025 aldirako ekintza-plan bat jorratzen dihardu buru-belarri, soldata-arrakala gutxitzeko estratejiaren testuinguruan.

Zer da soldata-arrakala?

Soldata-arrakalaz hitz egiten dugunean, jabetu behar dugu arazo konplexu bati buruz ari garela, egiturazko eta dimentsio askoko arazo bati buruz. Hari aurre egiteko erantzunak ere integrala izan behar du, eta tartean diren eragile eta alor guztietatik iritsi behar du. Zuzeneko soldata-arrakalaz gain –hau da, lanpostu berean emakume bati gutxiago ordaintzea gizon bati baino–, ahalegina egin behar da zeharkako soldata-arrakala ikusarazteko eta gutxitzeko; horren jatorria faktore kultural, sozial eta enpresarialak dira, batez ere.

Zeintzuk?

Mundu osoan dirauen segregazio horizontala eta bertikala, zeinaren ondorioz

emakumeak soldata txikiagoko lanetara bideratuak diren; lan-merkatuan emakumeek eta gizonak dituzten posizio ezberdinak, genero-harremanak eta estereotipoak direla eta; eta gizon askoren erantzukidetasun falta, besteak beste.

EAEn ba al dago besteek baino eragin handiagoa duen faktorerik?

Segregazio horizontalak –sexuaren ondoriozko laneko segregazio ere deitzen zaio– du eraginik handiena: % 35era iristen da, Genero-arrakalak Euskadiko lan-merkatuan azterlanaren arabera. Segregazio horren ondorioz, emakumeek eta gizonak genero-rolekin lotura duten lanbideetan dihardute, eta ikusten da soldata-arrakala handituz doala zenbat eta lanbide batean emakume gehiago aritu. Hau da, emakumezkoentzat jotzen diren lanbideetan gutxiago ordaintzen da. Azterketaren arabera, lanbideen feminizazio/maskulinizazio maila berebiziko faktorea da lanorduko ordaintzen den soldataren arrakalan, arrakala horrek nabarmen egiten baitu gora lanbide bateko emakumeen portzentajea hazi ahala, eta alderantziz. Azterketan, dokumentu bidez erakusten da mundua osoan dirauen segregazio horizontala eta bertikala, emakumeak lan-mota jakinetara zokoratu eta aginte-guneetan egotea eragozten diena.

Dirudienez, erantzukidetasun falta da soldata-arrakalaren beste faktore erabakigarri bat. Zein neurritan ditu zuzeneko ondorioak jokabide horrek?

Gizon askoren erantzukidetasunik ezaren ondorioz, emakumeek malgutasun handiagoko lanbideak onartu behar dituzte, laneo eta familiako beharrak orekatzeko. Horrek lagundu egiten du aipatu berri dudana segregazio horizontal edo bertikalak irautarazten. Horrenbestez, jardunaldi partzialeko lanetan dabilzan emakumeen portzentajea gehiegizkoa da mundu osoan. EAEn, hain zuzen ere, lanaldi partzialeko lanaren % 80 baino gehiago emakumeek egiten dute. Faktore hori oso garrantzitsua da, eta, lan-bizitza aktiboan ez ezik, desberdintasuna eragiten du gerora ere, pentsio-erregimen eta -modalitate bat edo bestea izateko eta zenbateko bat edo bestea jasotzeko garaian.

Zein estrategia darabilzue erakundeek jarrerara hori zuzentzeko?

Aldaketak izan dira azken hamarkadetan, baina ez nahikoak oraindik. Datuek agerian uzten dute bide luzea dagoela egiteko, eta horregatik, hain zuzen, aurtengo martxoaren 8an egin genuen kanpaina zaintza ikusarazi, baloratu eta partekatu beharri buruzkoa izan zen. Emakumeak arduratzen dira zaintzaz gehienbat, eta horrek eragozten die, hein handi batean, lan-munduan sartzea, irautea eta euren ibilbidea garatzea. Horrek ondorioak ditu soldata-arrakalari dagokionez. Emakunden lanean ari gara gizonen erantzukidetasuna sustatzeko zaintzan eta etxeko lanetan, sentsibilizazio-kanpainen bidez, gizonen zuzentzen zaie Gizonduz programaren bidez, Nahiko hezkuntza-programarekin neska-mutikoak heziz... Helburua da Euskadi izatea Europako soldata-arrakala txikiena duten herrialdeetako bat.

